



ERANSKINA /ANEXO

**2022eko ORDENANTZA FISKALEN 1. ALDAKETAREN PROPOSAMENA /
PROPUESTA DE 1ª. MODIFICACION ORDENANZAS FISCALES 2022**

1.01.- ZERGA: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATUKO DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

V. HOBARIAK.

5. Artikulua.

Ondorengo hobariak egingo dira:

1. Zerga kuota osoaren %50eko hobaria, beti ere interesatuek obrei ekin aurretik hala eskatzen badute urbanizatzeko, eraikitzeko eta sustapen enpresek egiten duten jardueraren xede direnentzako, bai obra berriak egiteko hala nola eraberritzeko, eta horiek haien ibilgetuaren artean azaltzen ez direnean.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik eta amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, beti ere denbora horretan urbanizatzeko edo eraikuntza lanak benetan egiten badira. Epealdi horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.

2. Familia ugariak. Zerga kuota osoaren gaineko hobaria jartzen da familia ugariko titularrak direnentzat. Hobari hau taula honen arabera arautua dago: 5 seme-alaba dituzten familientzat, % 50, eta 6 seme-alaba edo gehiago dituztenentzat, %90.

Hobaria bakarrik familiaren ohiko bizileku eta eurek jabe diren etxebizitzari egingo zaio.

Hobaria egin ahal izango da ere garajerako erabiltzen den lokal batengatik eta beste bat trastetegirako.

Hobaririk ez da egingo merkataritzarako bideratutako finkengatik.

Interesatuek eskaera egiteko orduan, familia ugariaren titulu ofiziala aurkeztu beharko dute.

Hobari hau jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da, eraikuntza berriko altamate kasuan izan ezik. Horiek, hilabeteko epea izango dute zerga honen lehen likidazioa jakinarazten den egunetik aurrera.

1.01.- IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.

V. BONIFICACIONES.

Artículo 5.

Se establecen las siguientes bonificaciones:

1. Del 50% de la cuota íntegra del Impuesto, siempre que así se solicite por los interesados antes del inicio de las obras, para los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado

El plazo de aplicación de esta bonificación comprenderá desde el periodo impositivo siguiente a aquel en que se inicien las obras hasta el posterior a la terminación de las mismas, siempre que durante ese tiempo se realicen obras de urbanización o construcción efectiva, y sin que, en ningún caso, pueda exceder de tres periodos impositivos.

2. Familias numerosas. Se establece una bonificación sobre la cuota íntegra del Impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa según la tabla siguiente: el 50% hasta 5 hijos y el 90% para las de 6 o más hijos.

La bonificación solo alcanzará a la vivienda de su propiedad que constituya la residencia habitual de la familia.

La bonificación podrá alcanzar a un local destinado a garaje y otro a trastero.

En ningún caso la bonificación alcanzará a fincas con destino comercial.

Los interesados deberán instar su concesión aportando el título oficial de familia numerosa.

El efecto de la concesión de esta bonificación empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud, excepto para las altas de nueva construcción, que dispondrán del plazo de un mes, a contar desde la fecha de notificación de la primera liquidación de este impuesto.



3. Kuota osoaren %50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako izango da, eta halaber, dela proiektuan ala erregistroan beraiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren, eta alokatzeko diren etxebizitza sozialentzat soilik.

Epea: 3 urte, behin betiko kalifikazioa eman ondoren.

4. Zergaren kuota osoan %50aren hobaria ezartzen da, euren kontsumorako izango den energia sortzeko, aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak jartzen dituzten etxebizitzentzat.

Gutxienerako potentzia 1 KW izango da. Potentzia hori instalazioaren potentzia osoa izan daiteke banakako instalazioen kasuan, edo erabiltzaile bakoitzari esleitutako potentzia instalaziokolektiboetan, instalazioa eraikin berean egon ala ez.

Ezingo da aplikatu hobari hau eguzki-energia aprobetxatzeko sistemak instalatzea nahitaezkoa bada arloko araudi espezifikoaren arabera.

Hobari hori, sistema ezartzen denetik bost urtean aplikatuko da eta jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da

5.- Zerga kuota osoaren %50eko hobaria, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako "Etxebizitza Hutsten Programa" barruan, edo antzekoak diren beste foru edo udal programa batzuen barruan erabilera-lagapena duten ondasun higieziei dagokionez.

Hobari hau jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da

6.- Zerga kuota osoaren %95eko hobaria, Nekazaritza kooperatiben eta luraren ustiapen komunitariorako kooperatiben landa ondasunek, 2/1997 Foru Arauaren 26.4 artikulua finkatzen duen baldintzetan.

Hobari hau 2022an aplikatu ahal izateko eskaerak 2022ko martxoaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

3. Del 50% de la cuota íntegra del Impuesto a las viviendas de protección oficial de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez que se otorgue la calificación definitiva, pero sólo para el caso de que se trate de viviendas sociales destinadas al alquiler.

Duración: 3 años contados desde el otorgamiento de la calificación definitiva.

4. Del 50% de la cuota íntegra del impuesto para aquellas viviendas que instalen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico para la generación de energía destinada a consumo propio de dichos inmuebles.

La potencia mínima deberá ser 1 KW. Esa potencia podrá ser la potencia total de la instalación en caso de instalaciones individuales, o la potencia asignada a cada usuario en instalaciones colectivas, independientemente de que la instalación se encuentre en el mismo edificio o no.

No procederá esta bonificación cuando la instalación de sistemas de aprovechamiento de la energía solar sea obligatoria a tenor de la normativa específica en la materia.

Ésta bonificación se aplicará durante cinco años desde la instalación del sistema y el efecto de la concesión de esta bonificación empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud,

5.- Bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del "Programa de Vivienda Vacía" regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 316/2002, de 30 de diciembre, o en el marco de otros programas forales o municipales similares.

El efecto de la concesión de esta bonificación empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud,

6.- Bonificación del 95% de la cuota íntegra de los bienes rústicos de las cooperativas agrarias y en los términos establecidos en el artículo 26.4 de la Norma Foral 2/1997.

Para la aplicación de dicha bonificación en el 2022 las solicitudes se deberán presentar antes del 31 de marzo de 2022



1.1.- Hiri ondasunen gainekoa:	-	1.1.- De Naturaleza urbana:
A) Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoa	% 0,600	A) Suelo industrial o terciario
B) Gainontzeko hiri ondasunak	% 0,2400	B) Resto bienes urbanos
1.2.- Landa ondasunen gainekoa	% 1,1	1.2.- De naturaleza rústica
2.- Gainkarga, zergaren kuota likidoaren gainean	% 100	2.- Recargo sobre la cuota líquida

1.02.- ZERGA: UDALERRIKO IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINARAZPENERAKKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

1.02.- IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA PARA DETERMINADAS FACULTADES PARA LA EXACCION DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS EN EL MUNICIPIO.

V. HOBARIAK.

V. BONIFICACIONES.

1.- Enplegua sortzen dutenek izango dituzte, baldin eta udal zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek hobaria aplikatu aurreko zergaldian behinbetiko kontratuarekin langile-plantillaren batz bestekoa igo badute. Horrela, ondorengo hobariak egingo dira:

1.- Por creación de empleo para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que hayan incrementado el promedio de su plantilla de trabajadores con contrato indefinido durante el período impositivo inmediato anterior al de la aplicación de la bonificación.

Lan-kontratu mugababea duten langileen kopuru Handitzea/ Incremento de plantilla de trabajadores con contrato indefinido.	Hobaria/ Bonificación	Kontratuen %60 edo gehiago emakumeentzat./ 60% de los contratos a mujeres	Kontratuen %30 edo gehiago 30 urte baino gazteontzat edo lan merkatuan txertatzko zailtasunak dituzten kolektiboentzat/ 30% o más de los contratos a personas de menos de 30 años o colectivos con problemas de inserción laboral.
%0,1etik %5era	10	15	15
%5,01etik-%10era	20	25	25
%10,01etik-%20ra	30	35	35
%20,01tik gora	40	45	45

2.- Kuotaren % 50, 2/1997 Foru Arauaren 5. artikulua eta kidekoek apaigai dituzten bereziki babesturiko kooperatibei, hots, lehenengo maila duten ondokoei: Elkarlaneko kooperatibei, Nekazalekoei, erkidegoan ustiatzekoei, irakaskintzakoei eta etxebizitzenei eta eraldatzeko nekazaritza elkartei.

2.- Del 50% de la cuota, a las Cooperativas Especialmente Protegidas de primer grado a que se refieren los artículos 5 y concordantes de la Norma Foral 2/1997, esto es Cooperativas de Trabajo Asociado, Agrarias, de Explotación Comunitaria, de Enseñanza y de Vivienda y las Sociedades Agrarias de Transformación.



3.- Kuotaren %25 eko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean

1) Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.

Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipo edo instalazioak dira.

2) Langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraiobiderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatua, sustatzeko.

4.- Kuotaren %50eko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat errenta edo etekin garbia negatiboa dutenean, eta eragiketa-bolumena 10.000.000 baino handiagoa ez bada.

Eragiketen bolumena eta etekin negatiboa hobaria aplikatzeko zergaldiaren aurre aurreko bigarren urteari dagozkionak izango dira.

Hobari hau 2022an aplikatu ahal izateko eskaerak 2022ko maiatzaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.

Hobari hauek zergadunak eskatu behar ditu eta eskatu ondorengo hurrengo epean sartuko dira indarrean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alde arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten direnak eta 4. atalean adierazitako izan ezik.

Gauza bat baino gehiagotatik hobaritu suertatuz gero, bakarrik hobaririk handienaz baliatu ahal izango da.

3.- Del 25% de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que:

1) Utilicen o produzcan energía a partir de instalaciones para el aprovechamiento de energías renovables o sistemas de cogeneración.

A estos efectos, se considerarán instalaciones para el aprovechamiento de las energías renovables las contempladas y definidas como tales en el Plan de Fomento de las Energías Renovables. Se considerarán sistemas de cogeneración los equipos e instalaciones que permitan la producción conjunta de electricidad y energía térmica útil.

2) Establezcan un plan de transporte para sus trabajadores que tenga por objeto reducir el consumo de energía y las emisiones causadas por el desplazamiento al lugar del puesto de trabajo y fomentar el empleo de los medios de transporte más eficientes, como el transporte colectivo o el compartido.

4.- Bonificación del 50 por 100 de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y tengan una renta o rendimiento neto de la actividad negativos siempre que no superen los 10.000.0000 de euros de volumen de operaciones.

Tanto el volumen de operaciones como el rendimiento negativo serán los correspondientes al segundo año inmediatamente anterior al período impositivo de aplicación de la bonificación.

Para la aplicación de dicha bonificación en el 2022 las solicitudes se deberán presentar antes del 31 de mayo de 2022

Dichas bonificaciones tienen carácter rogado y entraran en vigor a partir del período siguiente a su solicitud, salvo aquéllas que se realicen de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 del Decreto Foral 80/1991, de 19 de noviembre, por el que se regulan determinados aspectos en relación a la gestión del Impuesto sobre Actividades Económicas y la señalada en el apartado 4.

En caso de concurrir dos o más supuestos de bonificación, solamente se aplicara por el concepto que posea el porcentaje más alto de bonificación.

1. ERANSKINA

Gutxieneko kuoten igoera bakarra: %2'2koa.

ANEXO 1

Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas



	fijadas: 2'2%
2. ERANSKINA UDAL MUGARTEKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA: Kategoriak-Indizea-Kodea-Kaleak, plazak edo auzoak	ANEXO 2 CLASIFICACION DE LAS VIAS PUBLICAS DEL TERMINO MUNICIPAL: Categorías-Índice-Código-Calles, plazas o barrios.

Kokapen indizea /Índice de situación : 1,2

KODEA/CODIGO	KALEA
6055	ARANGUREN POLIGONOA
6041	EGIBURUBERRI PASEALEKUA
6011	KAPUTXINOAK PENINTSULA
1807	MASTI-LOIDI KALEA
1208	NAFARROA HIRIBIDEA ,6 y 85
1808	TXIRRITA-MALEO KALEA
6008	ZAMALBIDE GUNEA
6007	ZENTOLEN GUNEA

Kokapen indizea /Índice de situación : 1

GAINONTZEKO KALEAK	RESTO CALLES
---------------------------	---------------------

3. ERANSKINA PONDERAZIO KOEFIZIENTEA Zergaren Tarifetan ezarritako kuota minimoak igo egingo dira, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateginaren 11. artikuluan jasotako taula aplikatuz, uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauan idatzita dagoenaren barruan, zeinaren bidez aldaketa jakin batzuk sartzen diren tokiko zerga-ordainketa	ANEXO 3 COEFICIENTE DE PONDERACIÓN Se incrementan las cuotas mínimas, fijadas en las Tarifas del Impuesto, mediante la aplicación de la tabla recogida en el Art. 11 del Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, en la redacción dada por la Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, por la que se introducen determinadas modificaciones en la tributación local.
---	--

1.03.-ZERGA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

1.03.- IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA.

V. HOBARIA.

V. BONIFICACIONES.

7. Artikulua

Artículo 7.

1.- %90eko hobaria izango dute ibilgailu fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeitamar urteko antzintasuna duten ibilgailuek, beti ere eguneroko ibilgailu gisa erabiltzen ez denean. Hobari hau

1.- Se establece una bonificación del 90% para los vehículos que tengan una antigüedad mínima de treinta años contados a partir de su fecha de fabricación o de su primera matriculación, siempre y



emateko oinarria 3/2019 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki jardungo da.

Presuntzioa egingo da subjektu pasiboa ez bada beste ibilgailu baten titular, ohiko joan-etorrietarako bere izenean dagoen ibilgailua erabiltzen duela.

2.- Halaber, Historikoak diren ibilgailuak %100eko hoberia izango dute.

Interesatuek eskaria egiteko ibilgailuaren fitxa teknikoa eta matrikula zenbakia ekarri beharko dituzte.

3.- Gutxi kutsatzen duten ibilgailuek hoberia izango dute zergaren kuotan, portzentajeari eta epeari dagokienez, ezaugarriak kontuan hartuta, betiere, idatz-zati hauetako batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

a) Motor elektrikoa duten ibilgailuek % 95eko hoberia izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.

b) Motor hibridoak dituzten ibilgailuek eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek, gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola erabili, % 75eko hoberia izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.

Hobari hori eskaripekoa da, eta egiaztatu egin behar da ibilgailuak eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituela, ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Txartelaren bitartez; txartel horretan agertzen ez badira, ezaugarri horiek jasoko dituen eta horretarako eskumena duen administrazioak igorriko duen agiri baten bidez frogatu beharko da.

Hobari hauek jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da eta aurreko urteetako hobariak ezin izango dira eskatu.

SALBUESPENAK.

8. Artikulua

Zerga ordaintzetik salbuetsita daude 14/1989 Foru Arauaren 2.1. artikuluko a) eta g) paragrafo bitartean aipatutako ibilgailuak. Ibilgailua desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko dela joko da Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko desgaitasun-ziurtagiria ekartzen denean. Bertan adieraziko da desgaitasuna duen pertsona ez dela gauza garraio publikoa erabiltzeko, mugitzeko 7 puntuko edo gehiagoko zailtasuna duelako.

cuando no se utilicen como medio de locomoción habitual. La concesión de la misma se efectuará con arreglo a las condiciones establecidas en la Norma Foral 3/2019.

Se presumirá que si el sujeto pasivo no es titular de ningún otro vehículo, el vehículo a su nombre es su medio de locomoción habitual.

2.- Asimismo, tendrán un bonificación del 100% los vehículos históricos.

Los interesados deberán instar su concesión aportando la ficha técnica del vehículo y su matrícula.

3.- Los vehículos menos contaminantes gozarán de una bonificación en la cuota del impuesto en el porcentaje y plazo correspondiente según sus características siempre que cumplan las condiciones establecidas en alguno de los siguientes apartados:

a) Los vehículos de motor eléctrico disfrutarán de una bonificación en la cuota del impuesto del 95 % durante cinco ejercicios a contar desde el de su primera matriculación.

b) Los vehículos de motor híbrido y los que utilicen gas como combustible, bien gas natural, gases licuados del petróleo o bioetanol, disfrutarán de una bonificación en la cuota del impuesto del 75 % durante cinco ejercicios a contar desde el de su primera matriculación.

Esta bonificación tiene carácter rogado, debiendo acreditarse que el vehículo posee las características exigidas mediante la Tarjeta de Características Técnicas del mismo o si no figuraran en ella, mediante documento expedido por la administración competente en el que consten.

Estas bonificaciones surtirán efectos desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud.

EXENCIONES.

Artículo 8.

Están exentos del Impuesto los vehículos señalados en el artículo 2.1. párrafos a) a g) de la Norma Foral 14/1989. Se entiende que un vehículo se encuentra destinado a transporte de personas discapacitadas, cuando se acredite mediante aportación del certificado de discapacidad expedido por la Diputación Foral de Gipuzkoa, que la existencia de dificultad de movilidad que impida la utilización de transportes públicos colectivos a la persona discapacitada es de 7 o más puntos.



Aurkeztu beharreko agiriak:

- 1.- Desgaitasun ziurtagiri eguneratua.
- 2.- Gidatzeko baimena.
- 3.- Ibilgailuaen zirkulazio-baimena
- 4.- Ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia, zeinean haren ohizko gidaria agertu behar duen
- 5.- Ibilgailua berak bakarrik erabiltzen duela dioen adierazpen zinpekkoa.

Documentación a presentar:

- 1.- Certificado de discapacidad actualizado.
- 2.- Permiso de conducir.
- 3.- Permiso de circulación del vehículo.
- 4.- Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo en la que figure el conductor habitual del mismo.
- 5.- Declaración responsable de uso exclusivo del vehículo.

9. artikulua

Salbuespen eskaerak egin ondorengo epealdian egingo dira. Ibilgailu berriek, aldiz, 2 hileko epea izango dute eskaera egiteko Trafiko Zuzendarizan alta eman ondoren.

Artículo 9.

Las exenciones surtirán efecto desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud, excepto para los vehículos nuevos que dispondrán de un plazo de 2 meses desde la fecha de alta en la Jefatura de Tráfico.

ERANSKINA.

Mota eta era guztietako ibilgailuen urteko kuotak hauek dira:

Karga mota:

Onartutako koefizientea 2,513koa da, ondorengoak izan ezik:

ANEXO.

Se fijan para las distintas clases y tipos de vehículo las siguientes cuotas anuales:

Tipo de gravamen:

El coeficiente aprobado es el 2,513 excepto:

A) Turismoak	-	A) Turismos
9 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	2,4170€	De menos de 9 caballos fiscales
9 eta 11'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,2960€	De 9 hasta 11'99 caballos fiscales
12 eta 13'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,5€	De 12 hasta 13'99 caballos fiscales
14 eta 15'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,2629€	De 14 hasta 15'99 caballos fiscales
16 eta 19'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,6366€	De más de 16 hasta 19'99 caballos fiscales
20 zerga-zalditik gorakoak	2,7051€	De 20 caballos fiscales en adelante
B) Trakzio mekanikoko ibilgailuak atoi eta azpiatoiak dituztenean.	-	B) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica.
1.000 eta 2.999 kg bitartekoa zama erabilgarria dutenak	2,5657€	De 1.000 a 2.999 Kg de carga útil
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	2,6183€	De más de 2.999 Kg. De carga útil
C) Bestelako ibilgailuak	-	C) Otros vehículos
Ziklomotorrak	2,5008€	Ciclomotores



125 cc-tik beherako motorrak	2,5056€	Motocicletas hasta 125 cc
125 eta 250 cc bitarteko motorrak	2,5106€	Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc.
250 eta 500 cc bitarteko motorrak	2,5366€	Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc.
500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak	2,5943€	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc.
1.000 cc-tik goragoko motorrak	2,6311€	Motocicletas de más de 1.000 cc

Tarifak:	Tarifas:
-----------------	-----------------

- IBILGAILU MOTA ETA INDARRA - KUOTA (€)	-	- POTENCIA Y CLASE DE VEHICULO - CUOTA (€)
A) Ibilgailuak	-	A) Turismos
9 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	44,45€	De menos de 9 caballos fiscales
9 eta 11'99 zerga-zaldi bitartekoak	84,45€	De 9 hasta 11'99 caballos fiscales
12 eta 13'99 zerga-zaldi bitartekoak	153,25€	De 12 hasta 13'99 caballos fiscales
14 eta 15'99 zerga-zaldi bitartekoak	194,20€	De 14 hasta 15'99 caballos fiscales
16 eta 19'99 zerga-zaldi bitartekoak	290,92€	De más de 16 hasta 19'99 caballos fiscales
20 zerga-zalditik gorakoak	364,81€	De 20 caballos fiscales en adelante
B) Autobusak	-	B) Autobuses
21 eserleku baino gutxiago dutenak	209,33€	De menos de 21 plazas
21 eta 50 eserleku bitartekoak	298,14€	De 21 a 50 plazas
50 eserlekutik goragokoak	372,68€	De más de 50 plazas
C) Kamioiak	-	C) Camiones
Zama erabilgarria 1.000 kg baino gutxiago dutenak.	106,25€	De menos de 1.000 Kg. de carga útil
1.000 eta 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	209,33€	De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil
2.999 eta 9.999 kg bitarteko zama	298,14€	De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga



erabilgarria dutenak		útil
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	372,68€	De más de 9.999 Kg. De carga útil
D) Traktoreak	-	D) Tractores
16 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	44,40€	De menos de 16 caballos fiscales
16 eta 25 zerga-zaldi bitartekoak	69,79€	De 16 a 25 caballos fiscales
25 zerga-zaldi baino gehiago dutenak	209,33€	De más de 25 caballos fiscales
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuak atoi eta azpiatoiak dituztenean.	-	E) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica.
Zama erabilgarria 1.000 Kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago dutenak	44,40€	De menos de 1.000 Kg. y más de 750 Kg. de carga útil
1.000 eta 2.999 kg bitartekoa zama erabilgarria dutenak	71,25€	De 1.000 a 2.999 Kg de carga útil
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	218,10€	De más de 2.999 Kg. De carga útil
F) Bestelako ibilgailuak	-	F) Otros vehículos
Ziklomotorrak	11,28€	Ciclomotores
125 cc-tik beherako motorrak	11,30€	Motocicletas hasta 125 cc
125 eta 250 cc bitarteko motorrak	19,38€	Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc.
250 eta 500 cc bitarteko motorrak	39,19€	Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc.
500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak	80,16€	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc.
1.000 cc-tik gorako motorrak	162,58€	Motocicletas de más de 1.000 cc

1.04.-ZERGA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Hobariak

20. Artikulua.

1. Zerga-kuotaren % 95eko hobaria jaso ahal izango dute:

a) Interes bereziko edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo

1.04.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

Bonificaciones

Artículo 20.

1. Podrán acceder a una bonificación del 95% de la cuota tributaria:

a) La obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias



historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak direlako izendapen hau mereziko dutenek. Izendapena Udalbatzak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

b) Autokontsumorako energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek (eguzkia energia, haize energia, eta abar). Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Eta, era berean, ingurumenaren onurarako egin direnak, hobi septikoen gisakoak, eta abar.

Hobari hori ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean.

Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak (eguzkia energia, haize energia, eta abar) gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean edo, hala badagokio, ingurumena hobetzeko helburuarekin burutzen diren obren kostuaren gainean; hala nola, hobi septikoak.

c) Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoetan egindako obrak

2. Zerga-kuotaren % 50eko hobaria jaso ahal izango dute:

a) Azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta dauden obrak, aldezturik udalak hala erabakita.

b) Alokatzeko etxebizitza sozialetan eta salmentara bideratutakoetan egingo diren obrek, betiere Administrazio Publikoek (Eusko Jaurlaritza eta Udalak) sustatuak baldin badira.

c) Administrazio publikoek BOEak sustatutako eraikin, instalazio eta obrei dagozkienak, zuzenean nahiz hitzartutako sustapenen bidez

3. Gehienez % 34ko hobaria eskuratu ahal izango dute, Eusko Jaurlaritzaren eskumena duen dagokion Sailak emandako laguntza jaso dutenek, baldin eta horiek ondasun urbanistiko eta eraikuntzak berriztatzeko babestutako jarduerentzako emanak izan badira.

sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

b) Las obras que incorporen sistemas para el aprovechamiento de energías renovables (solar, eólica, geotérmica etc.) para el autoconsumo. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente. Asimismo, aquellas que sean ejecutadas con objeto de llevar a cabo mejoras medioambientales, como fosas sépticas, etc.

Dicha bonificación únicamente se aplicará en aquellos supuestos en los que la instalación de los citados sistemas no sea exigible por la normativa correspondiente.

Asimismo, la bonificación se aplicará, únicamente, sobre la parte de la cuota correspondiente a la partida referida a la construcción, instalación y obra que incorporen sistemas para el aprovechamiento de energías renovables (solar, eólica, etc.), o en su caso, sobre el coste de las obras que sean ejecutadas con objeto de llevar a cabo mejoras medioambientales, como fosas sépticas, etc.

c) Las obras realizadas en Centros docentes públicos dependientes del Gobierno Vasco.

2. Podrán acceder a una bonificación del 50% de la cuota tributaria:

a) Las obras vinculadas a los planes de fomento de las inversiones privadas en infraestructuras, previa declaración municipal.

b) Las obras en viviendas sociales destinadas al alquiler y para las destinadas a la venta, siempre que sean promovidas por las Administraciones Públicas (Gobierno Vasco y Ayuntamientos).

c) Las construcciones, instalaciones y obras referentes a V.P.O. promovidas por las administraciones públicas, bien directamente, bien mediante promociones concertadas.

3. Podrán acceder a una bonificación máxima del 34% aquellas licencias urbanísticas, cuyas obras resulten beneficiadas de las ayudas otorgadas por el Departamento competente en la materia del Gobierno Vasco, para las actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanístico y edificado.



Arestian adierazitako portzentajea, babestutako jardueran sartutako obraren titularren elementu komunitatean partaidetza, Komunitate osoari buruz, dutenaren arabera gutxituz gertatzen dena izango da.

4.- Zerga kuotaren %90eko hobaria. Pertsona ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituzten obrak.

Hobaria likidazioan aplikatuko da zuzenean, obra-lizentzian jasotako datuen arabera.

1etik 3rako ataletan adierazitako hobariak jaso ahal izateko, Udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko da eskaera, hirigintzako lizentzia jakinarazten denetik edo adierazpen erantzulea edo aurretiazko komunikazioa egiten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean. 3. atalean birgaitzeko jardura babestuetarako aurreikusitako hobarietarako, laguntzak ematen direnean hasiko da kontatzen 2 hilabeteko epea eta ez da aplikatuko fatxadak osorik konpontzeko obratan edo eraginkortasun energetikoko sistema duten estalkien lanetan, horiek zerga berezia dutelako.

Gauza bat baino gehiagotatik hobaritu suertatuz gero, bakarrik hobaririk handienaz baliatu ahal izango da.

ERANSKINA

Tarifa eta karga tasa

El porcentaje anteriormente indicado, resultará minorado en función de la participación en los elementos comunes de los titulares de las obras incluidas en la actuación protegida, respecto al total de la Comunidad.

4.- Bonificación del 90% de la cuota tribuaria para aquellas obras que mejoren la accesibilidad y las condiciones de habitabilidad de las personas discapacitadas.

La bonificación se aplicará directamente en la liquidación de acuerdo con los datos de la licencia de obras concedida.

Para poder disfrutar de las bonificaciones establecidas en los apartados 1 al 3 deberá presentarse en el registro de entrada de este Ayuntamiento la oportuna solicitud en el plazo de 2 meses a partir de la notificación de la correspondiente licencia urbanística o presentación de la declaración responsable o comunicación previa. En el caso de la bonificación prevista en el apartado 3 relativa a actuaciones protegidas de rehabilitación el plazo será de 2 meses desde la concesión de las ayudas y no será aplicable a aquellas obras de arreglo integral de fachadas y/o cubiertas que incorporen sistemas de eficiencia energética por estar sujetas a un tipo de gravamen especial.

En caso de concurrir dos o más supuestos de bonificación, solamente se aplicará por el concepto que posea el porcentaje más alto de bonificación.

ANEXO

Tarifa y tipo de gravamen

1. Eraikuntza, instalazio eta obraren aurrekontua:	-	1. Presupuesto de construcción, instalación y obra en general:
- 12.100,00 €ko aurrekontu arte:	% 3,13	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00 €tik goragoko aurrekontua:	% 5,00	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
2. Negutegiak egiteko obrak eta nekazaritza ekoizpenari adskribatutako elementuek:	% 2,08	2.- Las obras de construcción de invernaderos y elementos adscritos a la producción agraria:
3.- Hirigune historikoa eraberritzeko lanak:	% 3,13	3.- Las obras de rehabilitación en el casco histórico:
4.- Ondasun higiezinak eraberritzeko lanak, konponketak, fatxadak	% 3,13	4.- Las obras de rehabilitación de inmuebles, referidas a arreglos,



margotzea eta teilatuak konpontzea, elementu komunak direnean, eta, baita nekazaritzari lotuta dauden etxeei dagozkienak ere:		pintura de fachadas y reparación de tejados de edificios de viviendas con elementos comunes, así como las realizadas en viviendas vinculadas a explotaciones agropecuarias:
5.- Ohiko etxebizitzarako erabiltzen diren etxeetan egindako lan guztietarako aurrekontua.	-	5.- Presupuesto para todas las obras acometidas en domicilios destinados a vivienda habitual:
- 12.100,00 €ko aurrekontu arte:	% 2,50	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00 €tik goragoko aurrekontua:	% 4,16	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
6.- Merkataritza edo lanbide-jardueretarako, zerbitzuetarako eta ostalaritza-eta jatetxe-establezimenduetarako lokalak eraberritzeko edo moldatzeko obrak, betiere lokalak bizitegi- eta zerbitzularzoru hiritarrean badaude.	-	6.-Presupuesto para obras de reforma o acondicionamiento de locales para actividades comerciales, actividades de servicios, establecimientos de hostelería y restauración en suelo urbano residencial y terciario.
- 12.100,00€ko aurrekontu arte:	% 0,78	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00€tik gorako aurrekontua:	% 1,31	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
7.- Fatxadak edota estalkiak erabat konpontzeko obrak, beti ere energia-eraginkortasuna hobetzeko sistemak jartzen badira.	% 1,56	7.- Obras de arreglo integral que afecten a fachadas y/o cubiertas que incorporen sistemas de mejora de eficiencia energética.
Energia-eraginkortasunaren hobekuntzat hartuko da fatxada, mehelin eta estalkien birgaitze termikoa, hartarako, barrendik eta kanpotik, isolamendu termikoa jarri bada; baita bizitzeko egokiak ez diren espazioekin, kanpoaldearekin edo lurrarekin kontaktuan dauden forjatuak isolamendu termikoz birgaitzea ere.	-	Se entenderá como mejora de eficiencia energética, la rehabilitación térmica de fachadas, medianerías y cubiertas mediante colocación de aislamiento térmico ya sea por el interior o por el exterior, así como la rehabilitación con aislamiento térmico de forjados en contacto con espacios no habitables, con el exterior, o con el terreno.
8.- Irakaskuntza Arautuko ikastetxeko obrak.	-	8.- Obras realizadas en Centros docentes de Enseñanza Reglada.
- 12.100,00 €ko aurrekontu arte:	% 0,15	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00 €tik goragoko aurrekontua:	% 0,25	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
Karga-tasa hori ezarriko zaie ikastetxeetan egindako eta hobaririk ez duten obrei.		Este tipo de gravamen será aplicable a las obras realizadas en centros docentes y que no sean beneficiarias de bonificaciones.

1.05.- ZERGA: HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

1.05.- IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL



**ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA
FISKALA.**

**INCREMENTO DE VALOR DE LOS
TERRENOS DE NATURALEZA URBANA.**

XII. ERANSKINA	XII. ANEXO
I. - Portzentai taula	I. - Cuadro de porcentajes

a) Urte 1etik 5era (urteko portzentaia)	%3,1	a) De 1 a 5 años (porcentaje anual)
b) 10 urte arte (urteko portzentaia)	%2,8	b) Hasta 10 años (porcentaje anual)
c) 15 urte arte (urteko portzentaia)	%2,7	c) Hasta 15 años (porcentaje anual)
d) 20 urte arte (urteko portzentaia)	%2,7	d) Hasta 20 años (porcentaje anual)

II. - Tarifa	II. - Tarifa
---------------------	---------------------

Karga tasa:	%10,41	Tipo de gravamen:
-------------	---------------	-------------------

2.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.

Salbuespenak edo beste zerga-onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, alderdi politikooak, talde politikoak, sindikatuak eta antzeko erakundeak lurzorua, zorupearen eta bide publikoko hegalaren erabilera pribatiboari edo aprobetxamenduari dagokion tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira (ONCE kabinak eta bestelako erabilera atalak atalak salbuetsita).

Era berean, %100eko hobaria jaso ahal izango dute erabilera publikoko lurzorua, lurrazpiaren edo hegalaren erabilera berezia edo aprobetxamendua egiteagatik, ordaindu beharreko tasan udalerriko baserrietako baratzeak, produktuak edo fruitak saltzen dituzten postuak eta Xabier Olaskoaga plazan kokatuak.

Aipaturiko hobaria eskatu egin behar da.

2.- TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL.

IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES

Artículo 6.

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se sujetará a lo que se establezca en las disposiciones generales de aplicación.

Las entidades sin ánimo de lucro, partidos políticos, agrupaciones políticas, sindicatos y entidades análogas estarán exentas del pago de la tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, subsuelo o vuelo de la vía pública (excepto los señalados en el apartado relativo a Cabinas Once y otros usos diferentes)

Asimismo podrán acceder a una bonificación del 100% en la tasa por utilización privativa o aprovechamiento del suelo, subsuelo o vuelo de uso público los puestos de venta de productos hortofrutícolas producidos en caseríos del municipio y situados en la plaza Xabier Olaskoaga.

Dicha bonificación tiene carácter rogado.

Ez zaie salbuespenik aplikatuko erlijio-erritu edo - No será aplicable la exención a las celebraciones de



zeremonien ospakizunei.

ritos o ceremonias religiosas.

2.01.- TASA: ESPALOTIK ETA BIDE PUBLIKOAREN ERRESERBA EGINEZ IBILGAILUEN SARRERA GORDETZEA.

2.01.- TASA: ENTRADA DE VEHÍCULOS A TRAVÉS DE ACERAS Y RESERVAS DE VÍA PÚBLICA.

I. TARIFAK

Tarifa hauek aplikatuko dira:

1 - Ibi erreserbako metro lineal bakoitzeko:

Jarduera ekonomikoko lokalera	207,93 €	A locales para actividad económica
Garaje erabilera duten lokaletara	70,78 €	A locales de garaje de uso
Industrialdeetako lokaletara	17,55 €	A locales en zona industrial

I. TARIFAS

Las tarifas a aplicar serán las siguientes:

1 - Por cada metro lineal de reserva de paso:

2 - Ibi erreserba gabeko metro lineal edo frakzio bakoitzeko:

2 - Por cada metro lineal o fracción sin reserva de paso:

Jarduera ekonomikoko lokalera	69,42 €	A locales para actividad económica
Garaje erabilera duten lokaletara	14,48 €	A locales de garaje de uso

3 - Karga eta deskargarako espazio erreserba metro lineal bakoitzeko

3 - Por cada metro lineal reserva de espacio para carga y descarga

metro lineal bakoitzeko	69,42€	Por cada metro lineal
Erabiltzen diren lokalak direnean, 1 eta 2 epigrafeetan ezarritako kuotaz gainera hiru garaje-plaza baino gehiago duen bakoitzeko:	-	Tratándose de locales de uso, además de la cuota establecida en los epígrafes 1 y 2 deberán abonar por cada plaza de garaje que exceda de tres:
a) Ibi erreserba badu	14,48 €	a) Si tiene reserva de paso
b) Ibi erreserbarik ez badu	3,59 €	b) Si no tiene reserva de paso

4 - Plaka ofiziala

4 - Placa oficial

Jartzeko garaian edo titularrak aldatu nahi duen aldiro.	25,98 €	En el momento del suministro o cada vez que el titular desee cambiarla.
--	---------	---



<p>2.03.- TASA: TOKI PUBLIKOKO LURZORUA, LURRAZPIA EDO HEGALKINAREN ERABILPEN PRIBATUA EDO PROBETXAMENDUA.</p>	<p>2.03.- TASA: UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO DEL SUELO, SUBSUELO O VUELO DE LA VÍA PÚBLICA.</p>
<p>I. TARIFAK Ordenantza honek arautuko dituen aprobetxamenduko tarifak hauexek izango dira:</p>	<p>I. TARIFAS Las tarifas de los aprovechamientos regulados en esta Ordenanza serán las siguientes:</p>
<p>Erabilera komuna Merkataritza eta industria jarduerak eta atxikitako elementuak: 1- Aparatu automatikoak saltzeagatik tasa ondorengo tarifen arabera likidatuko da:</p>	<p>Uso comun Actividades comerciales e industriales y elementos anexos: 1- Aparatos automáticos: la tasa por venta en aparatos automáticos se liquidará con arreglo a la siguiente tarifa:</p>

Baskula automatikoak eta antzeko aparatuak, urteko eta aparatuko	99,99 €	Básculas automáticas y aparatos similares, por cada año y aparato
Salgailu automatikoak, urteko eta salgailu bakoitzeko	51,24 €	Aparatos de venta automática, por cada año y aparato

2- Mahaitxo bakoitzeko tarifa urtekoa eta zatiezina izango da, beti ere ondorengo mailaren	2- La tarifa por veladores será anual e indivisible con arreglo a la siguiente tabla:
--	---

2 mahai	204,92 €	2 mesas
4 mahai	400,83 €	4 mesas
6 mahai	588,20 €	6 mesas
8 mahai	765,20 €	8 mesas
10 mahai	937 €	10 mesas
12 mahai	1.095,67 €	12 mesas
14 mahai	1.254,50 €	14 mesas
16 mahai	1.400,26 €	16mesas

